

Garapen Sostengarria: gaur egungo errealitatea

(Sustainable Development: The current reality)

Moreno Gómez, Amaia; Ortiz Antunez, Kistiñe; Tovar Martínez, Oihane;
Ugarte Pérez, Maider; Bilbao González, Oihane;
González Sainz de la Maza, Nerea; García Belar, Johanna;
Egaña Urresti, Naia; López Magunazelaia, Nagore
UPV/EHU. Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola. Ramón y Cajal, 72
48014 Bilbo

Gizarte hezitzaileen ikuspuntutik garapen iraunkorari buruzko hausnarketa, gaur egun dauden arazoak begiratuta. Hala nola herrialdeen arteko desberdintasunak, kontsumismoa, gizartearen alienazioa komunikabideen bitartez edota gizartearen zaharkuntza progresiboa. Marginatuta dauden kolektibo guztiak gizarteratzeko prozesu bat garatu behar da.

Giltza-Hitzak: Garapen Iraunkorra. Arazo sozialak. Kontzientziazioa. Jokabide aldaketa.

Reflexión sobre el desarrollo sostenible desde el punto de vista de los educadores sociales, con la contemplación de los problemas actuales. Problemas tales como las diferencias entre los países, el consumismo, la alienación de la sociedad llevada a cabo por los medios de comunicación o el envejecimiento progresivo de la sociedad. Se necesita desarrollar un proceso de integración en la sociedad de todos los colectivos marginados.

Palabras Clave: Desarrollo Sostenible. Cuestiones sociales. Concienciación. Cambio de comportamiento.

Réflexion sur le développement durable du point de vue des éducateurs sociaux, eu égard aux problèmes actuels. Des problèmes tels que les différences entre les pays, la surconsommation, l'alignement de la société réalisée par les moyens de communication ou le vieillissement progressif de la société. Il faut développer un processus d'intégration dans la société de tous les collectifs marginalisés.

Mots Clés: Développement Durable. Questions sociales. Prise de conscience. Changement de comportement.

Gizarte hezitzaileen ikuspuntutik, hitz egingo dugu garapen sostengatuari buruz, hau da, dimentsio sozil batean, finkatuko garelarik.

Desberdintasun soziala gero eta nabariagoa da bai herrialde ezberdinen artean baita herrialde berean ere. Ez da gauza bera Afrikan jaiotzea edo Europan jaiotzea, bizi-kalitatea eta aberastasuna inolako konparaziorik ez dutelarik. Pertsona afrikar batek bertan jaiotzeagatik, arau eta kultura zehatz batzuk bereganatu behar izaten ditu; horrexegatik, kulturak dituen ohituren arabera erreztasun edo zailtasun gehiago egon daitezke. Bestalde beste kultura batera moldatzea ez da batere erraza prozesu luzea eta konplexua baita. Azkenik kultura batean egonda rol batzuk edo besteak bereganatzea ez dela gauza erraza azpimarratu behar da. Errolak bereganatzen goazen momentuan, konturatzen gara ez dela gauza berdina pobre baten errola, edo dirudun baten errola jarraitzea.

Kulturak eta gizarteak, errol desberdinak osatzen doaz denboraren poderioz. Hasiera batean, emakumea jaiotzearen gero, etxean egotea eta umeak zaintzea beharrezkoa zen. Egoera asko aldatu da eta gauzak ez dira lehen ziren bezalakorak. Bestalde, badaude oraindik horrelako ideologia zaharkitutako gizartean bizi direnak.

Horrez gain, desberdintasun sozialen oinarria azpimarratzea gustatu litzaiguke. Hauen artean gehien ematen dena, etnia edo arrazakeriaren bazterketa soziala litzateke. Hau, desberdina denari beldurra diogulako sortzen da. Horrexegatik, pertsona batzuk besteak baino hobeagoak direlakoan daude. Beste arazo bat, jabetza publiko eta pribatuaren banaketa orekatua ematen ez dela izango litzateke. Horren eraginez, pertsona batzuk asko dute eta besteak txirotasunean hiltzen dira.

Konturatu behar gara, desberdintasunak ez direla zertan txarrak izan behar, pertsonen oinarriko eskubideak baztertzen ez diren bitartean. Hau da, etniak eta arrazak ezin ditugu aldatu, bakoitza den bezalakoa delako, baina munduaren oreka ekonomiko bat bultzatzea oinarrikoa litzateke. Hala ere, badakigu, hau gertatzea ezinezkoa dela, mundua elitearen menpekotasunean bizi delako. Horren inguruan, beraz, kontzientiazio bat piztu beharrean gaude: *“ni ez naiz zu baino gehiago ezta zu ni baino gutxiago”*.

Gizakiok ditugun kontsumoa gero eta handiagoa izanik, gizarte etekinak handiagoak izango dira. Horren aurrean, langile gehiago beharko ditugu edota lanpostu gehiago komertzioaren bidez, diru nahikoa irabazi ahal izateko. Kontsumismoa *zoratu*ta dago gaur egun gauzak erosten ditugulako erosteagatik, ez beharrezkoak ditugulako. Telebista eragin handia duen faktorea da gure bizitzan, iragarkien helburua ez da produktu bat saltzea, produktu hori ikusleek erostea baizik. Gainera, ez dira konformatzen iragarkiaren espazioaren barruan produktuak saltzen, baizik eta ikusle gehiago duten telebista, programetan... saltzen dituzte. Esaterako, “Los Serrano” telebista argi ikusi dezakegu.

Hau da, antzezten dauden bitartean produktu batean finkatzen dira produktuari garrantzi gehiago emanez esaten ari direnari baino.

Programa gehienetan ere, nolako pertsonak izan behar garan erakusten digute eta guk inkontzienteki eredu hori jarraitzen dugu edo jarraitzea gustatuko litzaiguke. Horrelako programazioaren bitartez gizarteko hainbat gatazka sortarazten dituzte. Adibidez, anorexia, bulimia, ebakuntzak, alkohola, drogak... Egoera hau ematen da modak eta inguratzen gaituzten pertsonak jarraitzen saiatzen garelako konturatu gabe.

Orokorrean gizartean dauden komunikabide gehienek manipulatzeko botere handia dute. Errepresentazio sozialen eraikitzaileak dira eta gizarteko arazo gehienak telebista isladatzen dira. Gizarte hezitzaileak izanik komunikabideei buruz heitzeko erantzukizuna dugu, horrela komunikabideen aurrean diskurtso kritiko bat sortuz eta pertsona parte-hartzaileak edo aktiboak bultzatuz, bakoitzak bere kabuz pentsatzeko gaitasuna eraikiz.

Biztanleriaren zaharkitasuna gero eta altuagoa da. Lehen, familien partaide hantziagoa zen, gaur egun aldiz, jaiotze tasa murriztu egin da, izugarri hainbat faktoreengandik. Gaur egun mundu laboralean parte hartzeko, prestakuntza luzeago bat egin behar dugunez, etxebizitza bat sortzeko garaia lortzeko garaia atzeratzen da eta aldi berean familia bat osatzeko garaia. Gizabanakoak, lehenik eta behin, egonkortasun bat bilatzen du lanean, bikotekarekin...eta hau lortu ondoren seme-alabak eukitzeaz pentsatzen hasten dira. Kontutan izanda egonkortasun hori lortzea gero eta zailagoa dela, ume gutxiago daude. Etxebizitzak gero eta garestiagoak dira, ez daude edozeinen eskura eta lortzeko inolako erreztasunik ez dugunez prozesua atzeratzen da. Honez gain, emakumea lan munduan sartzeak pisu handia izan du seme-alabak izaterakoan. Guzti honengatik gero eta zahar gehiago daude gure gizartean eta azkenean desoreka bat egongo da, gazte gutxi eta agure asko.

Hala ere, ezin gara kexatu bizi garen herrialde honetan baliabideak ditugulako, munduko herrialde batzuetan berriz, egoera oso txarra denez, emigratzeko beharrean ikusten dira, bizi kalitate hobeago baten bila. Honek arazo bat dakar gure gizartean, lanpostu gehiago betetzen dituztelako eta guk egoera horren aurrean beldurra dugu, inbaidu egingo gaituztela pentsatzen dugulako. Etorkinak esku lana merkeago eskaintzen dute eta enpresa askok irabazi handiak lortzen dituzte. Gainera, hauek guk nahi ez ditugun lanak egiten dituzte. Europa handitzeko eta aberasteko etorkinen laguntza behar dugu. Gure betebeharra egoera honen aurrean, jendea kontzientizatzea da, etorkinei beldurra ez izateko eta nolabait integratzen saiatzen, baztertuak ez sentitzeko eta gure gizarte honetan aukera bat izateko.

Bakarrik egonez gauzak egiteko zailtasun handiagoak ditugu, horregatik batasun bat askoz hobeagoa da, denok irabazi dezagun. Etorkinei, laguntza

eman beharrean, geure interesetan finkatzen gara, besteen arazoak alde batera utziz, egozentrismoa muturrera eramanez. Gizarte talde bat osatzen dugula konturatu behar gara, ez gara bakarrak mundu honetan. Gero eta gizarte indibidualistago bat sortzen ari gara, aberatsak gero eta aberatsagoak dira eta txiroak, aldiz, gero eta txiroagoak, desoreka ekonomiko latz bat sortuz.

Arazo guzti hauek aipatu eta gero, langabetuak, inmigranteak, zaharrak eta gizartean bazterturik dauden talde guztien gizarteratze prozesu bat bultzatzea nahiko genuke, guztion kontzientziazioa sustatuz. Argi dago kontzientziazioa prozesu zaila eta luzea dela, baina bakoitzak bere aldetik zerbait jartzekotan etorkizuneko garapen sozial, politiko eta ekonomikoa erretuko litzateke.